

Herrian zer berri?

2025eko Apirila

eh
bildu
**Laz
kao**



**Etxebizitza
Gazteon etorkizuna
Euskara**

Etxebizitzaren konponbidea

Hiri antolamendurako plan orokor (hapo) berrian hasten da

La solución a la vivienda comienza en el nuevo plan general de ordenación urbana (pgou)

Etxebizitzaren gaia da Euskal Herriko eta Lazkaoko gazteak gehien kezkatzen dituen gaia. Gai hori HAPOarekin estu lotua dago, Plan Orokorrean antolatzen baitira herriko baliabideak herriko beharrei erantzun egokia eman diezaieten.

Askok dira HAPOren baitan hartu beharreko erabakiak. Berez hamarkada baterako-edo gidalerroak marrazten dira, baina azkena idatzitakoen esperientziak esaten digu bi izatea ere ohikoa dela. Izan ere, 2007an indarrean jarri ziren Arau Subsidiarioak dira ia bi hamarkada geroago indarrean daudenak.

La vivienda es, sin duda, una de las principales preocupaciones de la juventud de Euskal Herria y de Lazkao. Este tema está estrechamente ligado al PGOU, ya que es en este Plan donde se distribuyen los recursos del municipio para responder a las necesidades locales en materia urbanística.

El PGOU requiere la toma de numerosas decisiones.

A pesar de que se establece para una década, la experiencia nos demuestra que estos planes suelen extenderse mucho más allá de ese plazo, a menudo hasta el doble de tiempo. De hecho, las Normas Subsidiarias aprobadas en 2007 siguen vigentes casi dos décadas después de su aprobación.




2024ko urriko osokoan esleitu zitzaion Estudio K enpresari Lazkaoko HAPO idazteko ardura. Legeak aurreikusten du herritarren parte hartze zabala arauak idazteko prozesuan. Hori dela eta, lazkaotarrok parte hartzera anima zaitezten, lehenik, historia pixka bat egitea pentsatu dugu, eta, ondoren, guri bururatzen zaizkigun hainbat galdera egiten ditugu, herritarron artean hausnarketarako balio izan dezaten.

En el pleno de octubre de 2024, se encargó a la empresa Estudio K la redacción del PGOU de Lazkao. La ley contempla una amplia participación ciudadana durante el proceso de redacción. Con el objetivo de fomentar la implicación de la ciudadanía lazkaotarra, hemos decidido ofrecer, en primer lugar, un breve repaso histórico, seguido de algunas preguntas que creemos pueden promover la reflexión entre todos los vecinos y vecinas.

HIRU ARO

TRES ETAPAS: Evolución de la población de Lazkao



1965-1991

Hazkunde urteak

Años de crecimiento

1979an udal demokratikoak osatu zirenean, 1965etik indarrean ziren arauak Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) agiriak biltzen zituen. Hura izan zen indarrean 1991n Nuevas Normas Subsidiarias dokumentua onartu zen arte.

Oso orokorra zen PGOU hori, eta Plan Partzialen bidez garatu behar izaten zen. Herri osoko lurrak barne hartzen zituen, eta non zer eraiki udalak, lurjabeek edo eraikuntza- sustatzaileek erabakitzen zuten. Horrek, besteak beste, **auzo eta etxe-sailen arteko jarraikortasun falta ekarri zuen**, eta etxe-sail baten eta bestearen artean soroak, belardiak, sagastiak... paisaiaren parte ziren. Halaber, lurzorua erabilera zehazten ez zuenez, ohikoak ziren etxebizitza izateko eraikitako etxabeetan tailerrak.

Garai horretan, indarrean zen araudi hori jarraituz eraiki ziren egungo Lazkao osatzen duten auzo gehienak: Gurutze-Hirigoienen zati bat, Iturgaitzaga (garai hartan Avanco izenez eza-gutzen genuen), San Prudentzio, San Jose, Santa Magdalena eta San Inazio.

Plangintzaldi horretan aurreikusten zen bi milagarreneko lehenengo hamarkadan **Lazkao** hogei mila biztanletik gorakoa izatea.

Cuando en 1979 se constituyeron los ayuntamientos democráticos, las normativas urbanísticas de 1965 seguían vigentes. Este Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) permaneció en vigor hasta 1991, cuando se aprobaron las Nuevas Normas Subsidiarias.

Este PGOU inicial era muy general, por lo que debía desarrollarse mediante Planes Parciales. Incluía todos los terrenos del municipio, y la decisión de qué construir y dónde recaía en el Ayuntamiento, los propietarios del suelo o los promotores inmobiliarios. Esto generó una **falta de continuidad entre barrios y solares**, donde, entre un conjunto de viviendas y otro, **se intercalaban campos, prados y huertos**, formando parte del paisaje. Además, la falta de especificación de los usos del suelo resultó en la proliferación de talleres en bajos que originalmente fueron diseñados como viviendas.

Durante este período se construyeron muchos de los barrios actuales de Lazkao: una parte de Gurutze-Hirigoien, Iturgaitzaga (antes conocido como Avanco), San Prudentzio, San Jose, Santa Magdalena y San Inazio. En esa planificación se preveía que en la primera década de 2000 Lazkao superaría los veinte mil habitantes.

1991-2007

Hirigintza oinarri berriak, lankidentza giroan landuak.

Nuevas bases urbanísticas en un contexto de colaboración

Lehenengo hirigintza plan hura sortu zenetik 26 urtera, 1991n heldu zitzaion arauak berritzeko lanari, Nuevas Normas Subsidiarias izenarekin. Herritarren eta haien ordezkarien arteko **lankidetza eta kontsentsua bilatzeari aparteko garrantzia** eman zion Diego Gurrutxaga alkatea buru zuen udalak.

Gizarte-mailan aldaketa handiak gertatuak ziren: biztanleriaren gorakada handiena amaitua zen, emakumea lan-mundura sartua zen eta familien diru-sarrerak asko hobetu ziren. Horrek guztiak **etxebizitza-eskarian aldaketak eragin zituen**. Besteak beste, haien tipologian eskaintza zabaldu beharra ekarri zuen: etxebizitza familia-bakarren eskaria zabaldu zen.

Arau hauek baldintzatzen zituzten Lege Orokorrak ere aldatuak ziren neurri batean. Esate baterako, Aldundiak eraikigarritasuna (hekta-reako zenbat etxebizitza eraiki) mugatzen zuen; haur-parkeak, berdeguneak, industrialdeak definitu beharra zehazten zuten...

Aro honetako **hirigintzan egindako eraldaketa garrantzitsuenak** hauek izan ziren: etxe-sail edo auzo sakabanatuen auziari heldu eta jarraikortasun bat bilatu zen, erdigunea ardatz hartuta; etxebizitza eskaera anitzari erantzun zitzaion; erdiguneko lantegi-tailerrak industrialdeetan birkokatu ziren; kirolgune eta zerbitzuak indartu ziren; landa-lurretan eraikitzea mugatu zen; gune historiko-artistikoa izendatu eta babes-neurriak hartu ziren; Agauntza, Sustraitz eta Beiztin ibai-erreken egoera mahaigaineratu zen; erdigunean arkitektura-historia baliorik ez zuten eraikinak eraitsi ziren.


En 1991, veintiséis años después de la primera planificación urbanística, se inició la renovación normativa bajo el nombre de Nuevas Normas Subsidiarias. El Ayuntamiento, bajo la dirección del alcalde Diego Gurrutxaga, dio especial énfasis a la colaboración y el consenso con la ciudadanía.

En el plano social, se habían producido grandes cambios: el fuerte crecimiento poblacional había concluido, las mujeres se habían incorporado al mercado laboral y los ingresos familiares habían aumentado significativamente. **Esto modificó la demanda de viviendas**, especialmente en la necesidad de diversificar la oferta: aumentó la demanda de viviendas unifamiliares.

También se produjeron cambios en la legislación que condicionaron estas normas, como la limitación de la edificabilidad impuesta por la Diputación y la obligación de definir parques infantiles, zonas verdes, polígonos industriales, etc.

Algunas de las transformaciones más relevantes de esta etapa fueron:

- Se abordó el problema de los barrios dispersos, buscando una mayor continuidad urbanística.
- Se dio respuesta a una demanda variada de viviendas.
- Los talleres en el centro se reubicaron en los polígonos industriales.
- Se reforzaron las instalaciones deportivas y los servicios.
- Se limitó la construcción en suelo rural.
- Se declaró zona histórico-artística y se aplicaron medidas de protección.
- Se evaluó el estado de los ríos Agauntza, Sustraitz y Beiztin.
- Se demolieron edificios sin valor arquitectónico en el centro urbano.



2007-2025

Gabeziaz beteriko plangintza, behar baino gehiago luzatu dena.

Planificación con carencias y dilación en su desarrollo

2007an onartu baziren ere, 1999tik hasi zuen udalak arauak idazteko prozesua. Luze jo zuen oso, beraz. Udalaren osieran aldaketak eragin zituen gertakari batzuk izan ziren politikaren alorrean garai horretan: batetik, PNVren zatiketa eta EAren sorrera; bestetik, ezker abertzalearen ilegalizazioa.

Plangintzaldi honen hasieratik nagusikeriazko jarrera erakutsi zuen Felix Urkola alkateak gidatzen zuen udal-gobernuak: berak bakarrik erabaki eta kontratatatu zuen arau subsidiario berrien idazketaz arduratuko zen arkitekto-taldea.

Taldeburu zen arkitektoak artean amaitzeko zituen arkitektura-ikasketak eta haren gabezia guztiak azaleratu ziren idazketa-prozesuan: esperientzia eta gaitasun tekniko falta, bilera-eritmo egokia dinamizatzeari inolako garrantzirik ez ematea, ekarpen teknikorik eza, bileretan proposatutako aldaketak planoetan islatzeko ezintasuna, dokumentuen idazketan akats larriak, hirigintza-legediaz ezjakintasuna, etab.

Lazkaoen hazkundea izan zen eztabaidagai nagusia plangintzaldi honetan. Bi jarrera kontrajarri izan ziren aurrez aurre: PNVk defendatzen zuen 10-12 mila biztanleko herria eta horretarako 1.600 etxebizitza eraikitzea; ezker abertzaleak 500-600 etxebizitza berriko Lazkao irudikatzen zuen. Auzi hori Foru Aldundiak ebatzi zuen: astakeria iritzi zion PNVren proposamenari eta ezker abertzalearen zifretara mugarazi zuen etxebizitza-kopurua.

Aunque las nuevas normas fueron aprobadas en 2007, el proceso de redacción comenzó en 1999, siendo un proceso largo y complicado. Durante este tiempo, diversos hechos políticos afectaron la composición del Ayuntamiento, como la escisión del PNV y la creación de EA, y la ilegalización de la izquierda abertzale.

Desde el inicio de esta etapa, el gobierno municipal, liderado por el alcalde Félix Urkola, adoptó una **postura autoritaria**. Decidió, de forma unilateral, contratar al equipo de arquitectos encargados de redactar las nuevas normas subsidiarias.

El arquitecto principal aún no había terminado sus estudios, lo que se reflejó en la **falta de experiencia y en diversas carencias técnicas durante el proceso**: errores en la redacción, falta de aportaciones técnicas, incapacidad para plasmar en los planos los cambios discutidos, entre otros problemas.

El principal tema de debate fue el crecimiento de Lazkao, con dos posturas enfrentadas: el PNV defendía un pueblo de 10.000 - 12.000 habitantes con 1.600 nuevas viviendas, mientras que la izquierda abertzale planteaba un Lazkao con solo 500-600 viviendas nuevas. La Diputación resolvió el asunto, limitando el número de viviendas a las cifras propuestas por la izquierda abertzale.

a partir de 2025 tik aurrera

Esan bezala, dagoeneko martxan da hurrengo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra garatzeko prozesua. Hasierako diagnostikoa osatzeko lau hilabete epea zuen hausnarketa hau zuzentzeko ardura duen Estudio K enpresak, eta honezkero, bukatu ez badute, bukatze behar du. Lehen diagnostiko hau aurkeztu ondoren, herritarron iritzia biltzea

Como mencionamos anteriormente, ya está en marcha el proceso para desarrollar el nuevo Plan General de Ordenación Urbana. La empresa Estudio K, encargada de liderar esta reflexión, tenía un plazo de cuatro meses para completar el diagnóstico inicial, y es probable que ya esté cerca de finalizarlo. Después de presentar



izango da enpresa honen hurrengo zeregina, horretarako partehartze prozesuak bultzatu eta bideratu beharko dituelarik.

diagnóstico, el siguiente paso será recabar la opinión de la ciudadanía, impulsando y canalizando procesos participativos.

Lazkaoren eta lazkaotarren etorkizunean eragin zuzena izango duten erabakiak hartuko direnez, herritarren artean hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi dugu lerro hauen bidez. Hona hemen guri burutzen zaizkigun galdera batzuk:

- Ze tamainatako Lazkao nahi dugu? 6.000 biztanle ingurukoa, 10.000koa, 20.000 koa...
- Nolako etxebizitza eta auzo eredia bultzatu behar genuke? San Jose edo Gurutzeko eredia da egokiena? Zubizkitzako familibakarrekoa? Edo berdegunerik gabeko Iturrialdeakoa? Behar bezalako orekarik gorde beharko litzateke etxebizitza-dentsitatearen ikuspuntutik?
- Etxebizitzara sarbidea errazteko neurri egokiak hartu ditu udalak ala merkatu-arauen esku utzi du? Herriko gazteek etorkizuna Lazkaon eraiki ahal izateko neurri egokiak hartu ditu?
- Zein zerbitzu bultzatu behar ditugu herrian? Non kokatu behar dira zerbitzu horiek?
- Herritarrek biltzeko nahikoa jolas-parke eta leku ireki baditu herriak?
- Paseorako eta beroaldietan atseden-leku izateko nahikoa berdegune baditu Lazkaok? Ingurumenak merezi duen begirunerik badu?
- Lehen sektorearen beharrak kontuan hartu ditu udalak orain arte?
- **Lurzorua zentzuz aprobetxatu al du orain arte** Lazkaok, etorkizuneko belaunaldiak behar beste lurzoru bermatuz? Behar bezain kontuan hartu al da beti hirigintzak osotasun ikuspegiz begiratu behar diola herriari?
- Herriaren interes kolektiboak interes pribatuei gailendu al zaizkie?
- ...

Dado que las decisiones que se tomen afectarán directamente al futuro de Lazkao, queremos fomentar la reflexión y el debate mediante estas preguntas:

- ¿Qué tamaño dimensión queremos que adquiera Lazkao? ¿Unas 6.000 personas, 10.000, 20.000...?
- ¿Qué modelo de vivienda y barrio deberíamos promover? ¿El de San Jose, el de Gurutze? ¿El unifamiliar de Zubizkitza? ¿El de Iturrialde, sin zonas verdes? ¿Cómo garantizamos un equilibrio adecuado en cuanto a la densidad de viviendas?
- ¿Ha tomado el Ayuntamiento medidas adecuadas para facilitar el acceso a la vivienda o ha dejado este asunto en manos del mercado? ¿Ha adoptado medidas eficaces para que la juventud local pueda construir su futuro en Lazkao?
- ¿Qué servicios debemos fomentar en el municipio y dónde deben ubicarse?
- ¿Tenemos suficientes parques infantiles y espacios abiertos para la ciudadanía?
- ¿Hay suficientes zonas verdes para pasear y descansar en días calurosos? ¿Se respeta el medio ambiente adecuadamente?
- ¿Ha tenido en cuenta el Ayuntamiento las necesidades del sector primario?
- ¿Se ha aprovechado de forma sensata el suelo disponible, garantizando cubrir las necesidades de las futuras generaciones?
- ¿Se ha considerado el urbanismo desde una perspectiva integral, que contemple el bienestar de todos los habitantes del municipio?
- ¿Han prevalecido los intereses colectivos del municipio sobre los intereses privados?

Gazteok etorkizuna Lazkaon

Nosotros jóvenes de lazkao, queremos construir nuestro futuro aquí

Gazteok gutxietsiak gaude: ez omen gara solidarioak, gizartearekiko kezkarik ez omen dugu eta indibidualistak omen gara. Gu, ordea, ez gatoz bat tesi horrekin, eta gazteoi alternatibak eskaini behar zaizkigula uste dugu.

Gazteon beharrak zein diren identifikatzea garrantzitsua da; ezin gara soilik aisian eta kirolean ditugun nahietara uzkuritu. Beraz, datozen aste eta hilabeteetan Gazteok etorkizuna Lazkaon ariketa egingo du Lazkaoko Ehbilduk.

Lazkaoko udala gazteon kezka eta beharrei erantzutetik urrun dago. Are gehiago, ez du proiekturik, gaitasunik eta gogorik horiei erantzuteko.

EhBilduk badauzka alternatibak eta proposamenak Lazkaoko gazteontzat, beraz adi datozen aste eta hilabeteetan.

Lazkaon bizitzea pribilegio bihurtzen ari da, zer esanik ez gazteontzat. Hori guztia, gainera,

normaltasunaren barruan ikusarazi nahi digute. Alokairu eskasia, babes ofizialeko etxebizitza eskasia eta etxebizitzaren prezio altuak ezinezko egiten du emantzipatzea aukera.

Hori gutxi ez eta, lan baldintzen prekarizazioaren ondorioz, etxebizitzarako sarrera asko zailtzen zaigu gazteoi: gure soldataren ehuneko oso handi bat etxebizitzako gastuak ordaintzerara bideratzen dugu.

Etxebizitza krisiari aurre egiteko estrategia integral bat behar du Lazkaok. Gaur egungo udal gobernuak ez du horretarako inolako asmorik.

Zenbatekoa da Lazkaoko etxebizitza parke publikoa? Zein da alokairuaren batez besteko prezioa Lazkaon?

Galdera horiei eta gehiagori erantzun eta alternatibak eskaintzea izango da gure xedea.

Gazteok
etorkizuna
Lazkaon
ehbildu | Lazkao



Las personas jóvenes estamos siendo subestimadas: se nos tilda de poco solidarias, de desinteresadas por la sociedad y de individualistas. Sin embargo, no compartimos esa visión. Creemos que es fundamental ofrecer alternativas reales a la juventud.

Es crucial identificar cuáles son las necesidades verdaderas de las personas jóvenes; no podemos limitarnos únicamente al ocio y al deporte. Por ello, en las próximas semanas y meses, EH Bildu de Lazkao pondrá en marcha la iniciativa **Gazteok Etorkizuna Lazkaon** (Nosotros jóvenes de Lazkao, queremos construir nuestro futuro aquí).

El Ayuntamiento de Lazkao está lejos de dar respuestas a las preocupaciones y necesidades de la juventud. De hecho, carece de proyectos, de capacidad y de voluntad para hacerlo.

EH Bildu sí tiene propuestas y alternativas para las personas jóvenes de Lazkao. Por ello, os llamamos a estar atentas y atentos en las próximas semanas.

Vivir en Lazkao se está convirtiendo en un privilegio, y aún más para las personas jóvenes.

Además, nos quieren hacer creer que esta situación es parte de la normalidad. La escasez de alquileres, la falta de viviendas protegidas y los elevados precios de las viviendas hacen que la posibilidad de emanciparse sea casi imposible.

Por si fuera poco, debido a la precarización de las condiciones laborales, el acceso a la vivienda se nos complica aún más. Destinamos una proporción muy alta de nuestros salarios a cubrir los gastos de vivienda.

Lazkao necesita una estrategia integral para hacer frente a la crisis de la vivienda. El actual gobierno municipal no tiene ninguna intención de abordar este problema.

¿Qué tamaño tiene el parque público de viviendas en Lazkao? ¿Cuál es el precio medio del alquiler en el municipio? Responder a estas y otras preguntas, y ofrecer alternativas, será nuestro objetivo.



Euskara:

asko nahikoa ez bada, gehiago egin behar da

**Cuando no es suficiente lo hecho,
hay que hacer más**



Askok aurreratu da euskara alorrean Lazkaon azken 50-60 urteetan. 50 urte beteko dira aurten diktadorea hil zela, eta hari bizitzako azken hamar urteak garrazten beste 10 urte bazeramatzan gure herriak: langile-matxinadak, ikastolaren sorrera, gau-eskolak... Zuetako askok zeuen hezurretan pairatu zenuten erantzunaren bortitza. Hainbeste, non batzuek oraindik uko egiten diozuen haren berri emateari. Askok, bai: asko egin da. Baina, nahikoa? EHBildu ezezkoan dago: egoera hobean egon gintezkeela uste du, eta, beraz, orain arte egindakoa nahikoa izan ez bada, gehiago egin beharrean gaudela.


Es cierto que se ha avanzado mucho en Lazkao en materia de euskera en los últimos 50 - 60 años. Este año se cumplen cinco décadas desde la muerte del dictador, pero nuestro pueblo llevaba ya diez años resistiendo: luchas obreras, creación de la ikastola, clases nocturnas... Muchas y muchos lo vivisteis en carne propia, y aún duele recordarlo.

Se ha hecho mucho, sí. Pero, ¿es suficiente? En EH Bildu creemos que no. Pensamos que podríamos estar mucho mejor, y si lo hecho hasta ahora no basta, hay que seguir empujando.

EZ DA NAHIKOA EGIN NO ES SUFICIENTE


Lehen-lehenik, ezin dugu ahaztu gure ardura unibertsala: hizkuntza endemiko baten komunitatea gara. Hizkuntza hau gure komunitatean bakarrik egiten da. Gu gara haren eusle bakarrak. Beraz, guk eusten ez badiogu, kito! Bada, horretan, neurri batean inguruaren presioari amore eman diogulakoan gaude. Diskurtso bat nagusitu da gure gizartean: “hemen bi hizkuntza ofizial ditugu”. Ondorioz, ni bietako edozeinetan ari naizela ere, besteari kalterik egiten ez diodalakoan nago. Hori egiaren erdia da, ordea. Izan ere, sarri ahazten zaigu bi hizkuntzen arteko egoera ez dela orekatua: bietan bat, gaztelania, nagusi dela (guztiok dakigula, guztiok komunika gaitezkeela hizkuntza horretan, guztiok kontsumi ditzakegula hizkuntza horretako produktuak, liburuak, filmak, diskoak, antzezlanak...); bestea, berriz, euskara, urruti dagoela hizkuntza hegemonikoaren egoeratik, eta ez dela hurbiltzen hasi ere egiten. **Ba al dakizu hizkuntza batek iraun dezan oinarrizko baldintza dela lurralde bat izatea non hegemonikoa den?**

Hemen bi hizkuntza ofizial ditugulako ideiarekin azpian egoera diglosiko bat ezkutatu nahi zaigu: hizkuntza bat da nagusi, eta bestea erabat menpekoa. Ohartuta edo oharkabea, epelegi ari gara jokatzen hizkuntzaren berreskuratze-prozesuan: eskola euskaldundu zela (ereduak eredu) badira 40 urte. Nolako ari da izaten emaitza? Zein herrialdek onartzen du eskolatik haurrak bere hizkuntza ez dakitela ateratzea? Imajinatzen duzue Frantziako eskoletatik frantsesik ez dakien haurrik ateratzea? Espainiako eskoletatik gaztelaniaz ez dakienik? Ez, horixe! Hizkuntza berreskuratzen laguntzeko jartzen dira zenbait tresna indarrean. Esate baterako, hizkuntza-irizpideak idazten dira hizkuntza ahulenaren mesedetan hura nagusiaren pare erabil dadin. **Nola liteke Lazkaoko udalak indarrean jarri nahi dituen irizpideek, hizkuntza ahulenaren aldeko neurriak proposatu beharrean, bi hizkuntzen aldekoak berdintasunez proposatzea?** Familia zaurgarriei laguntzeko erak definitzen direnean arazorik ez duten familiak laguntzeko neurriak proposatzen ikusten al duzue? Zergatik hizkuntza-rekin bai?



Somos comunidad de una lengua endémica en el planeta. Solo se habla aquí, solo nosotras y nosotros podemos garantizar su futuro. Y sin embargo, sentimos que, en parte, hemos cedido ante las inercias del entorno. Se ha instalado una idea peligrosa: “tenemos dos lenguas oficiales, todo está equilibrado”. Pero eso no es verdad. Una de ellas, el castellano, es la lengua dominante: la conoce todo el mundo, se puede vivir, consumir y comunicarse plenamente en ella. El euskera, en cambio, está muy lejos de esa situación. ¿Sabías que para que una lengua se mantenga viva necesita un territorio donde sea hegemónica?

Bajo esa supuesta igualdad lingüística se esconde en realidad una situación de **diglosia**: una lengua manda, la otra depende. ¿Estamos actuando con la ambición suficiente para revertir esta situación? Hace 40 años que se euskaldunizó la escuela. ¿De verdad estamos satisfechos con los resultados? ¿Qué país acepta que su infancia termine la escolarización sin dominar su propia lengua? ¿Alguien se imagina que en Francia salgan niñas y niños que no hablen francés? ¿O en el Estado español, sin saber castellano? ¡Claro que no! Cuando se quiere fortalecer una lengua, se aplican criterios lingüísticos que favorezcan a la más débil. ¿Cómo puede ser que el ayuntamiento de Lazkao proponga medidas neutras, sin tener en cuenta el desequilibrio entre las dos lenguas? ¿Acaso cuando se diseñan políticas para apoyar a familias vulnerables, se proponen también medidas para las que no lo son? ¿Por qué con la lengua sí?



ZER GEHIAGO EGIN BEHAR DA Y AHORA, ¿QUÉ?

Lazkao ez da herri bat gehiago euskarari dagokionez. Gure herria aitzindari izan da euskara biziberritzeko egitasmoak abiatzen: ikastola eta euskal-eskola lekuko. Eta horrek ardura berezia ematen digu gaur egungo egoeran ere.

Estatuetako legedi nagusiek hizkuntzak eta hiztun-komunitateak gaur bezala diskriminatzen jarraitzen duten bitartean, egoera iraultzea ezinezkoa izango dela baieztatzen ausartzen gara. Bi estatuek, zeinek berea, espainola eta frantsesa, tinko defendatzen dute: hizkuntza jakiteko eta erabiltzeko derrigortasuna ezartzen diete herritar guztiei; bietako batek, ofiziala den lurraldean geurea erabiltzeko eskubidea aitortzen digu; besteak, hori ere ez. Berdintasunaren izenean, bi aukera ikusten ditugu: edo lege nagusi horiek berek ezartzen dute hizkuntza guztientzat derrigortasuna edo guztiena ezabatzen dute. Dena dela, hori aldarrikatzea Lazkaoko EHBilduren eskuduntzatik kanpo dago, eta muga gaitezen gu geure esparrura!

Udalak, udalbatzakideek eta teknikariek barne, hizkuntzaren berreskuratzean jarrera aktiboa izan behar dute: eredugarria.

Euskara-batzordean elkartzen garen eragile euskaltzaleon ahaleginari etekinik handiena ateratzeko lidergoa izan behar du batzordeak. Lidergo hori erabakimen handia izanez gero eta erabakiak gauzatzeko aurrekontuak izanez gero bakarrik izango du.

Beste behin, lidergo hori bere gain hartzeko prest dagoen EHBilduren esku utz dezala eskatzen diogu publikoki EAJren udal-gobernuari.

Lazkao no es un pueblo cualquiera en lo que al euskera respecta. Ha sido referente en procesos de revitalización lingüística: la ikastola y Goierriko Euskal Eskola son prueba de ello. Y eso nos insta a continuar siendo pioneros, a diseñar un modelo a imitar.

Mientras las legislaciones de los Estados sigan discriminando al euskera y a su comunidad, será muy difícil cambiar esta situación. España y Francia defienden con firmeza sus lenguas: las imponen como. Solo uno de estos países reconoce formalmente nuestro derecho a usar el euskera; el otro, ni eso. Por eso decimos alto y claro: o se garantiza la obligatoriedad para todas las lenguas, o se elimina para todas. Pero mientras tanto, actuemos desde donde sí podemos hacerlo.

El Ayuntamiento debe asumir un papel ejemplar en la recuperación del euskera. Tanto la corporación municipal, con su alcalde y concejales, como el personal técnico y político deben implicarse activamente. La Comisión de Euskera debe ejercer un liderazgo efectivo: con decisión y con presupuesto.

Desde EH Bildu estamos dispuestas a asumir esa responsabilidad. Por eso pedimos públicamente al gobierno municipal del PNV que nos ceda el liderazgo de la política lingüística. Porque si no es suficiente con lo hecho, haremos más.

Bizi Lazkaoko jaiak begirunez!

Gora
Lazkaoko
Gazte
Asanblada!

JAIETAN, JAR DITZAGUN GURE IKURRAK BALKOJETAN!